



HAUTAPEN PROZESUEI BERRIRO EKITEA

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren eta hura kudeatzeko deklaraturako alarma egoeraren ondorioz, etenda geratu ziren hautapen prozesu guztiak martxoan.

Bi hilabete igaro ondoren, badirudi egoerak hobera egin duela, eta, horrenbestez, pentsatzekoa da laster jarri ahal izango direla atzera martxan hautapen prozesuak; osasun egoerak, inguruabar teknikoek eta antolaketarekin lotutako auziek horretarako aukera ematen badute, behintzat.

Hori horrela, izangaiek bizi duten ziurgabetasun egoeraren berri izanik, egoki irizten diogu honako aurreikuspen hauek jakinarazteari, momentuz izaera orientagarri bada ere:

1.- Praktikaldi fasean diren hautapen prozesuak:

- Ogasuneko GT (2018): aurki elkartuko da Ebaluazio Batzordea, izangaien praktikaldia balioesteko.

2.- Lehiaketa fasean diren hautapen prozesuak:

- Gizarte langilea: martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eta haren luzapenek ezarritako administrazio epeen etenaldia bertan behera geratzen den egunetik hasi eta hamar egun baliadunen bueltan, euskara proben behin betiko emaitzak argitaratuko dira, baita merezimenduen behin-behineko balioespena ere.

REANUDACIÓN DE LOS PROCESOS SELECTIVOS

En el mes de marzo la situación de emergencia sanitaria producida por la Covid-19 y el estado de alarma declarado para gestionar dicha situación paralizaron todos los procesos selectivos.

Dos meses más tarde la situación parece haber mejorado y, por ello, cabe pensar que próximamente se podrán reanudar los procesos selectivos, si bien siempre que la situación sanitaria y las circunstancias técnicas y de organización lo permitan.

Debido a ello, y conociendo la situación de incertidumbre que viven los/as aspirantes, resulta oportuno, aun cuando sea con carácter orientativo, informar de las siguientes previsiones:

1.- Procesos selectivos en fase de periodo de prácticas:

- TS Hacienda (2018): próximamente se reunirá la Comisión Evaluadora para evaluar el periodo de prácticas de los/as aspirantes.

2.- Procesos selectivos en fase de concurso:

- Trabajador/a social: en el plazo aproximado de 10 días hábiles desde que quede sin efecto la suspensión de los plazos administrativos establecido por el RD 463/2020, de 14 de marzo, y sus prórrogas se publicarán los resultados definitivos de euskera y la valoración provisional de méritos.



- Medikua: martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eta haren luzapenek ezarritako administrazio epeen etenaldia bertan behera geratzen den egunetik hasi eta hamar egun baliodunen bueltan, merezimenduen behin-behineko balioespena argitaratuko da.
- Administrazio orokorreko teknikaria: martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eta haren luzapenek ezarritako administrazio epeen etenaldia bertan behera geratzen den egunetik hasi eta bost egun baliodunen bueltan, hirugarren ariketako behin betiko emaitzak argitaratuko dira eta merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko epea irekiko da.

OHARRA: Administrazio epeak 2020ko ekainaren 1ean abiaraziko direla uste da.

- Médico/a: en el plazo aproximado de 10 días hábiles desde que quede sin efecto la suspensión de los plazos administrativos establecido por el RD 463/2020, de 14 de marzo, y sus prórrogas se publicará la valoración provisional de méritos.
- TAG: en el plazo aproximado de 5 días hábiles desde que quede sin efecto la suspensión de los plazos administrativos establecido por el RD 463/2020, de 14 de marzo, y sus prórrogas se publicarán los resultados definitivos del tercer ejercicio y se abrirá el plazo para la alegación y acreditación de méritos.

NOTA: Se cree que los plazos administrativos se reanudarán el 1 de junio de 2020.

3.- Oposizio fasean diren hautapen prozesuak:

- Maiatzaren 29tik aurrera, hautapen prozesu hauetako lehen ariketaren behin betiko emaitzak argitaratuko dira:
 - Psikologoa
 - Albaitaria
 - Itzultzailea/interpretea
 - Berdintasuneko GT
 - Arkitektoa
 - Ingurumeneko GT
 - Ogasuneko GT (2019)
 - Ogasuneko ET
- Atzeratutako ariketei berrekiteko, kontuan hartuko da zenbat izangaik egin behar duten ariketa hori, bai eta ariketa jakin bakoitzak eskatzen dituen inguruabar teknikoak eta antolaketakoak ere. Aurreikuspenen arabera, honako jarraibide hauek hartuko dira kontuan ariketa horietarako, osasun egoerak eta

3.- Procesos selectivos en fase de oposición:

- A partir del 29 de mayo se publicarán los resultados definitivos del primer ejercicio de los siguientes procesos selectivos:
 - Psicólogo/a
 - Veterinario/a
 - Traductor/a-intérprete
 - TS Igualdad
 - Arquitecto/a
 - TS Medio Ambiente
 - TS Hacienda (2019)
 - TM Hacienda
- Se prevé retomar la realización de los ejercicios aplazados atendiendo al número de aspirantes que realizarán el ejercicio y a las circunstancias técnicas y de organización que requiere cada ejercicio en particular. Esos ejercicios se prevé realizarlos de acuerdo con lo indicado a continuación siempre que la situación sanitaria y



gainerako inguruabarrek uzten badute, behintzat:

- Ekainetik uztaile bitartean, hautapen prozesu hauetako bigarren ariketak egingo dira:
 - Psikologoa (izangaiak < 20)
 - Albaitaria (izangaiak < 20)
 - Itzultzailea/interpretea (izangaiak < 20)
 - Berdintasuneko GT (izangaiak < 50)
 - Arkitektoa (izangaiak < 50)
 - Ingurumeneko GT (izangaiak < 50)

Ariketa horiek ez dira egingo ekainaren 15a baino lehen, eta, nolahi ere, gutxienez 10 egun baliodun lehenago adieraziko da zehatz-mehatz zer egunetan izango den ariketa.

Ariketaren data finkatzeko, kontuan hartuko da bizilekua Gipuzkoatik kanpo duten izangaiak Gipuzkoara etortzeko aukera izatea.

- Abuztuan ez da egingo hautapen probarik.
- Hautapen prozesu hauetako bigarren ariketak ez dira egingo irailaren 1a baino lehenago:
 - Zerga agentea (izangaiak > 100)
 - Delineatzailea (29 izangai – ordenagailua)
 - Proiektu eta obretako teknikari laguntzailea (65 izangai – ordenagailua)
 - Ogasuneko ET (izangaiak > 100)
 - Ogasuneko GT (izangaiak > 100)

Ariketaren data zehatza gutxienez 10 egun baliodun lehenago jakinaraziko da. Dena dela, abuztuaren 1etik 24ra bitartean ez da iragarpenik egingo.

demás circunstancias lo permitan:

- Entre junio y julio se realizarán los segundos ejercicios de los siguientes procesos selectivos:
 - Psicólogo/a (aspirantes < 20)
 - Veterinario/a (aspirantes < 20)
 - Traductor/a-intérprete (aspirantes < 20)
 - TS Igualdad (aspirantes < 50)
 - Arquitecto/a (aspirantes < 50)
 - TS Medio Ambiente (aspirantes < 50)

Tales ejercicios no se realizarán antes del 15 de junio y, en todo caso, la fecha concreta del ejercicio se publicará con al menos 10 días hábiles de antelación.

Para fijar la fecha del ejercicio se tendrá en cuenta que los/as aspirantes no residentes en Gipuzkoa puedan desplazarse a Gipuzkoa.

- En agosto no se celebrarán pruebas selectivas.
- Los segundos ejercicios de los siguientes procesos selectivos no se celebrarán antes del 1 de septiembre:
 - Agente tributario (aspirantes > 100)
 - Delineante (29 aspirantes – ordenador)
 - TAPO (65 aspirantes – ordenador)
 - TM Hacienda (aspirantes > 100)
 - TS Hacienda (aspirantes > 100)

La fecha concreta del ejercicio se publicará con al menos 10 días hábiles de antelación. No obstante, entre el 1 y el 24 de agosto no se efectuará ninguna publicación.



- Ogasuneko ET eta GT: ondoriorik gabe geratzen dira bigarren ariketarako data orientagarriak, 2019ko abenduan argitaratu zirenak, bai eta haien zatien arteko denbora tarteak ere.
- Artxibo eta Zerbitzu Orokorretako ofizialetarako hautapen prozesuko lehen ariketa (152 izangai) ez da izango irailaren 1a baino lehenago. Ariketaren egun zehatza gutxienez hilabete aurretik jakinaraziko da. Dena dela, abuztuaren 1etik 24ra bitartean ez da iragarpenik egingo
- TM y TS Hacienda: quedan sin efecto las fechas orientativas del segundo ejercicio que se publicaron el mes de diciembre de 2019, así como los espacios temporales entre sus distintos apartados.
- El primer ejercicio del proceso selectivo de Oficial de Archivo y Servicios Generales (152 aspirantes) no se celebrará antes del 1 de septiembre. La fecha concreta del ejercicio se publicará con al menos 1 mes de antelación. No obstante, entre el 1 y el 24 de agosto no se efectuará ninguna publicación.

4.- Hurrengo deialdiak:

Honako hautapen prozesu hauen deialdia 2020ko irailerako zegoen aurreikusita. Oraingo aurreikuspenen arabera, zurrerik 2020ko azaroan deituko dira:

- Ekonomiako GT
- Kudeaketa Ekonomikoko ET
- Informatikako ET
- Arkitekto teknikoa
- Nekazaritzako ET
- Basozaintzako ET
- Instalazioetako ET
- Herri Lanetako ET
- Topografoa
- Erizaina
- Kiroletako ET
- Lan Arriskuen Prebentzioko ET
- Euskara Sustatzeko ET

4.- Nuevas convocatorias:

Los siguientes procesos selectivos que se preveían convocar en septiembre de 2020 se convocarán previsiblemente en noviembre de 2020:

- TS Economista
- TM Gestión Económica
- TM Informático/a
- Arquitecto/a técnico/a
- TM Agrícola
- TM Forestal
- TM Instalaciones
- TM Obras Públicas
- Topógrafo/a
- Enfermero/a
- TM Deportes
- TM Prevención Riesgos Laborales
- TM Promoción Euskera



Aurreikuspenok guztiak osasun agintaritzak unean-unean ematen dituen jarraibideei loturik daude, COVID-19ak eragindako osasun egoerak duen bilakaerarekin bat; aurreikuspenok betetzeko, halaber, kontuan hartuko dira baldintza teknikoak eta antolaketarekin lotutako alderdiak, bermatzeko egokiro betetzen direla urrutze sozialeko arauak eta segurtasunarekin eta higieinarekin loturiko gainerakoak.

Hori dela eta, gerta liteke aldatetaren bat izatea aurreikuspen hauetan. Halakorik izanez gero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko Enplegu Publikoaren atalean jakinaraziko da:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/enplegu-publikoa>

Estas previsiones se encuentran supeditadas a las indicaciones que en cada momento realicen las autoridades sanitarias de acuerdo con la evolución de la situación sanitaria producida por la Covid-19, así como a las condiciones técnicas y de organización que permitan garantizar el efectivo cumplimiento de las normas de distanciamiento social y demás normas de seguridad e higiene.

Por esa razón, estas previsiones pueden sufrir modificaciones, lo que será anunciado en el apartado Empleo Público de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/empleo-publico>

Donostia, 2020ko maiatzaren 22a / San Sebastián, 22 de mayo de 2020

Funtzio Publikoko Zerbitzua / El Servicio de Función Pública